



LUZKANDO

2024ko otsaila

**HAMAIKA HERRI
UDALERRI BAT**



**Iruraiz
Gauna**

UDALA | AYUNTAMIENTO


LUZNANDO Nº 42

ARITARATZAILEA ETA MAKETAZAILEA:
IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

IMPRIMETZAILEA:
EDITORIAL MIC



otsaila 2024



-  Azilu kalea, 4 - 01193 AZILU
-  945300991
-  662938822
-  airuraiz.erregistroa@ayto.araba.eus
-  @iruraizgauna_udala
-  Iruraiz-gaunako Udala
-  www.Iruraiz-gauna.eus

AURKIBIDEA

| | | |
|----|------------------------------------------------------------|----|
| 1 | Editoriala | 4 |
| 2 | Irudi korporatibo berria | 5 |
| 3 | Udaletxearen inaugurazioa | 6 |
| 4 | Hileta zibiletarako espazio bat izateko aukera | 8 |
| 5 | Aurrekontuak | 9 |
| 6 | Topaketak | 10 |
| 7 | Nagusien topaketa | 13 |
| 8 | Kultura jarduerak | 14 |
| 9 | Euskara jarduerak | 15 |
| 10 | AMALUR Iruraiz-Gauna Udalerriko Emakumeen Taldea | 16 |
| 11 | Partikularren eta elkarteen jarduerak | 18 |
| 12 | Propuosamenak | 19 |
| 13 | Instagrameko zozketak | 19 |
| 14 | Zure espazio | 20 |
| 15 | Agenda | 24 |

EDITORIALA



Iruraiz-Gaunako Udalbatza



Iratxe del Barco
Jon Koldo Saez de Urabain
M^a Estibaliz Baglietto
Jesús Guevara



Amaya Sagasti
Sheyla Pérez de Leceta
Carlos Gómez

Goraintziak Udalbatza osoaren izenean.

Hilabete batzuk igaro dira Iruraiz-Gaunako bizilagunek udalerrian norabide aldaketa bat nahi zenutela erabaki zenutenetik. Eta norabide horretan ari gara lanean.

Iruraiz-Gauna udalerrri dinamikoa eta deszentralizatua izatea jarri dugu helburu nagusizat datozen urteetarako. Gure 11 herriak lotu nahi ditugu, bizilagunen arteko harremanak biderkatzeko.

Administrazio Batzarretan ere lan egitea ezinbestekoa dela uste dugu. Garrantzitsua iruditzen zaigu horiek indartzea, beren kontzejuei lagundu ahal izan diezaieten eta autonomiarik galdu ez dezaten. Entzun egin nahi ditugu, eta sortzen zaizkien zailtasunak konpontzen lagundu nahi diegu.

Gure betebeharra da, halaber, udalerrri jasangarriago bat eraikitzea eta gure paradisuan inposatu nahi dizkiguten izugarrikerietatik defendatzen saiatzea. Horretarako, udalerrriak elkartuta egon behar du, eta denak batera arraunean egin behar du.

Gobernu Taldean aldaketa horren seinale da ordezkatzeko gaituen irudi korporatibo berria, eta aldizkari berritu honek tokiko gai garrantzitsuak jorratu nahi ditu, hala nola albisteak, ekitaldiak, topaketak, baita inguruko garapen-proiektuak ere.

Herritarren parte hartzea ere gustatuko litzaiguke; beraz, aldizkari honetan zerbait interesgarria partekatu nahi baduzu (ezagutzak, trebetasunak, argazkiak, etab.), jar zaitez harremanetan Udalarekin. Gure bizilagunen profilak partekatzea ere baliotsua iruditzen zaigu.

Aldizkari honek ere gu elkartzea eta konektatzea nahi dugu.



Iruraiz
Gauna

UDALA | AYUNTAMIENTO

IRUDI KORPORATIBO BERRIA

 **Alaitza**
IRURAIZ-GAUNA

Iruraiz-Gaunan gure Udalaren irudi korporatiboa erabat eguneratzen hasi gara. Aurrera egiteko eta eboluzionatzeko ideiarekin, gure irudia modernizatzeko unea zen, gure ikuspegia eta balioak hobeto islatzeko eta eskualdean genuen posizioa nabarmentzeko.

 **Arrieta**
IRURAIZ-GAUNA

Identitate korporatibo berria, etorkizunera begira dagoena eta logo berritua duena.

 **Azilu**
IRURAIZ-GAUNA

Hemendik aurrera, gure logotipo berriak gure Udala eta gure Udalerrria modu argiago, gaurkoago eta dinamikoagoan irudikatuko ditu, baina bere historia osoaren esentzia berarekin. Egungo joerekin egunean egoteko konpromisoa ere islatzen du, eta aldaketei eta mugitzen garen inguruneari erantzun arinagoa emateko konpromisoa.

 **Erentxun**
IRURAIZ-GAUNA

Logoa pixkanaka aplikatuko da euskarri eta formatu desberdinetan.

 **Ezkerekotxa**
IRURAIZ-GAUNA

Gaur aurkezten dugun irudia azterketarako eta hausnarketarako barne-prozesu baten emaitza da. Prozesu horren bidez, gure filosofian lanean jarraitzeko konpromisoa berresten dugu, gogo biziz: herritarrei zerbitzurik onena ematea, irtenbideak ematea, eta, azken finean, seriotasunean, gardentasunean, zorrotasunean eta errespetuan oinarritutako egiteko modu baten barruan gure bertsiorik onena ematea.

 **Gauna**
IRURAIZ-GAUNA

Logotipoan, EGUZKILOREren sinboloa mantentzen dugu, gure udalerrian hain bereizgarria dena, ukitu minimalistagoa duena. Hamaika herriek ordezkaritza dute. Koloreak gure luraren isla dira. Tonu berde eta kobredunetarantz eboluzionatu du, gure lurraldean zehar inguratzen gaituzten horietarantz.

 **Gazeo**
IRURAIZ-GAUNA

 **Gerenu**
IRURAIZ-GAUNA

 **Jauregi**
IRURAIZ-GAUNA

Ilusioz ekingo diogu etapa berri honi, hazten jarraitzeko eta egunetik egunera hobeak izateko gogoz. Irudi korporatibo berriak gure funtsa eta «Udalerrria hobetzeko gogoa» islatzen ditu.

 **Langarika**
IRURAIZ-GAUNA

 **Trokoniz**
IRURAIZ-GAUNA



UDALAREN INAUGURAZIOA

Duela 8 urte jarri zen martxan Iruraiz Gaunako Udalaren eraikina berritzeko lanak. Guztira, 712.00 euroko inbertsioa egin da, eta finantzaketan Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Udalak parte hartu dute.

Obrak 18 hilabetez luzatu dira. Birgaitze horrekin, batez ere, "eraikin irisgarri, moderno, jasangarri eta energetikoki eraginkorragoa" lortu da. "Argia eta zabaltasuna irabazi dira, lan-espazio erosoagoak eta atseginagoak lortzeko".

2023ko azaroaren 28an inauguratu zen udaletxe berria, eta bertan parte hartu zuten korporazioko ordezkariak, eskualdeko alkateak, Lautadako Kuadrillako eta Landa Garapenerako Elkarteko lehendakaria, Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreekako foru diputatua, Eusko Jaurlaritzako Landa Garapenerako Saileko zuzendaria eta eskualdeko beste gizarte eragile batzuek.

Inaugurazioan, herriko bizilagunez gain, DARDARA eskualdeko taldeak ere lagundu zигun, eta dantza-ikuskizunarekin girotu gintuzten.

Iruraiz-Gaunako egungo alkateak bere aurrekoa, Susana, ekarri zuen gogora, bere agintaldian hasi bait ziren berritze lanak eta; zoritxarrez, "goizegi utzi gintuen bere asmoetako bat gauzatu ezinik". Bere omenez plaka bat jarri dute eraikinean.

Gainera, alkateak esker oneko hitzak izan zituen udal langileentzat, haiek baitira egunero herritarrei arreta eta erantzuna ematen dietenak.

"Eraikina berritzeko lanak udalbatza eta udal-gobernua berritzearekin batera iritsi dira. Ziklo berri bat hasten ari gara Iruraiz-Gaunako udal bizitzan. Bide berri bati ekingo diogu udalerrri honek aurrera egin dezan", nabarmendu zuen alkateak.

Inaugurazioa eraikina bisitatzen eta Lanturrin eskeini zen Luncharekin amaitu zen non jendeak denbora elkarri hitzegiten eman zuen.



LAN-EREMUA



**ARGITASUNA ETA
ZABALTASUNA**

IRISGARRITASUNA



HILETA ZIBILAK



Udalak Lanturri zentro soziokulturala utziko du hileta zibilak egiteko.

Udalbatzak azaroan onartu zuen Hileta eta Omenaldi Zibilen Antolaketa arautzen duen ordenantza. Horrela, hemendik aurrera, udalerriko bizilagunok ekitaldi horiek egiteko gune bat izango duzue. Lanturri (Azilu) zentro soziokulturala izango da.

Uste dugu Udalaren betebeharra dela gure bizilagunen erlijio-, ideologia- eta kultur-askatasuna bermatzea, eta beharrezko mekanismoak gaitu behar dituela gure udalerriko edozein pertsonak horrelako omenaldi edo agur bat egin dezan beste udalerrri batera joan beharrik izan gabe.

Ordenantzak azpimarratzen du ezin dela cuerpo presente egin. Nolanahi ere, hautetsontziekin edo errauts-anforekin egin ahal izango dira. Ekitaldi horiek astelehenetik igandera egin ahal izango dira, 9:00etatik 20:00etara. Ekitaldiak ezingo du bi ordu baino gehiago iraun, eta 10 euroko tasa ordaindu beharko da ordu bakoitzeko. Gainera, Udalak megafoniako, pantailako eta proiektagailuko oinarritzko sistema bat jarriko du eskatzaileen eskura, ahal den guztietan, 100 euroko fidantza ordaindu ondoren.



2024ko UDAL AURREKONTUAK

Iruraiz-Gaunan lehen aldiz egutegi bat onartu da udal aurrekontuak egiteko prozesuan denborak zehazteko.

Administrazio Batzarrak izan ziren beren ideiak ematen lehenak, bete zuten galdetegiari esker, eta, ondoren, herritarrek proposamenak, beharrak eta iradokizunak aurkezteko epea ireki zen. Proiektuak 21 proposamenetatik 7 jaso zituen, hala nola herri kirolak sustatzea, funts bibliografikoa erostea, Udal Jaia berreskuratzea, bizikletak konpontzeko dorreak jartzea, etab.

Ekarpen horiekin guztiekin, Udal Gobernuak azaroaren 21ean aurkeztu zion aurrekontuen proiektua oposizioko taldeari, eta astebeteko epea ireki zen udal kontuei zuzenketak aurkezteko.

Udalerrri honetan beste mugarri berritzaile bat izan zen abenduaren 1ean Osoko Bilkurak aurrekontuak hasieran onartu baino astebete lehenago Lanturri zentro soziokulturalean herritar guztiei irekitako Batzar Informatiboa egitea. Batzar horretan udal aurrekontuaren nondik norakoak azaldu ziren eta horri buruzko hainbat kezka eta iradokizun jaso ziren. Topaketa interesgarria izan zen, eta jasotako proposamenen aurrean Udalak dituen muga ekonomikoak ere azaldu ahal izan ziren.



HERRIKO TOPAKETAK

2023ko azken seihilekoa urtez urte sendotzen ari diren topaketez beteta egon da.

KORTERRAZA ETA UDAKO ZINEMA

Uztaila eta iraila bitartean, Iruraiz-Gaunak Arabako aire zabaleko film laburren jaialdiaz gozatu ahal izan du berriz ere. Bertan, Kultura Kalean! elkarteak antolatutako urteko film laburrik nabarmenenak ikusi ahal izan ditugu. Uztailean Langarikan SUPER SELEKZIOA proiektatu zen eta abuztuan KORTERRAZA TXIKI Erentxunen izan zen. KORTERRAZAz gain, UDAKO ZINEMA ere izan genuen Gaunan, "Llenas de Gracia" filmarekin.



ERROMERIAK


Ohikoa denez, irailean egin ziren herrian tradizioz egiten diren 3 erromeriak. Santa Isabel Jauregin, San Vitor Gaunan, data aldaketa bat jasan zuena eguraldi txarraren ondorioz, baina gero dena primeran atera zen; eta berriro ere Bujandako bizilagunek beste urte batez hartu gintuzten, lehen mailako San Fausto bat otordu onekin eta musika onarekin ospatzeko.



MUGIKORTASUNAREN ASTEA



Duela urte batzuetatik hona, gure udalerriko bizilagunak arduratzen dira Mugikortasunaren Astea ikusarazteaz. Joan den irailean, **Langarikako** jaiekin bat zetorrela aprobetxatuz, BTT martxa bat programatu zen, eta Aguraingo Txirrindularitza Klubak antolatutako bizikleta-gynkana batekin amaitu zen, herriko frontoian. Oraingoan haizea izan zen protagonista.



ASTEKLIMA

Elaz Iruraiz-Gaunak ere bat egin nahi izan zuen ASTEKLIMA ekimenarekin, herritarrek beharrezko trantsizio energetiko eta klimatikoaren aurrean kontzientziatu eta mobilizatzea helburu duen ekimenarekin. ASTEKLIMAK aurreikusten dituen ekintzek aukera ematen diete parte-hartzaileei klima-aldaketak dakartzan erronketan murgiltzeko eta tokikotik jarduteak klimaren eta energiaren erronkei aurre egiteko duen garrantzia ulertzeko, bai gaur egungoak, bai etorkizunekoak. Horretarako, irailaren 23an **†Azilu**n, herriko txikiak "Inguru Mingur. Naturarekin bat" ipuin kontaketa parte-hartzailea izan zuten Ana Apika eta Intxixu Valbuenaren eskutik.



GAUBELTZA

Curriaren 3In GAUBELTZA edo ARIMEN GAUA ospatzen omen da eta duela urte batzuetatik hona, hainbat herritarren ekimenari esker, **†Erentxun** misterioz betetako eszenaratzeaz gozatzeko topaleku bihurtzen da. Joan den urtean, EGIPTO izan da aukeratutako gaia, eta espektatiba guztiak gaindituz, Arabako hainbat tokitatik jendea etorri zen. ZORIONAK antolakuntzari!



NAGUSIEN TOPAKETA

↑Azilu

27 nagusi parte hartu dute azaroan Nagusien topaketan. Javier Vegas kazetaria eta ikertzailean eskutik "Cuando las bodas se hacían andando. Álava antes de las carreteras" hitzaldiarekin hasiera eman zen ondoren meza Juanjo Lecuonak ospatzeko. Bazkaria jarraitu zion mezari eta bukatzeko, nola ez, BINGOra jolastu zuten arratsalde osoan zehar. Hain ekintza arrakastatsua izanenez, Udalak erabaki zuen hilerro BINGOak antolatzea gure herri ezberdinetan. Jadanik ↑Arrietan eta ↑Gaunon izan dira eta hurrengo ↑Gerenu otsailak 20an izango da. Animatu zaitzete!



KULTURA JARDUERAK

SUKALDARITZA TAILERRAK

Lehen hiruhilekoan sukaldaritza-tailerrek oso harrera ona izan zuten, beste 3 gozogintza-tailer antolatu ziren azaroan **Alaitza**, **Gauna** eta **Azilu**, eta txokolate-brownieak, arroz-pastela eta askotariko tartaletak egin ziren bertan. Proposatutako errezetak egiteko oinarriko nozioak eman ziren, meriendatu zen eta goxokiren bat edo beste etxera eramateko aprobetxatu zuten!



EUSKARA JARDUERAK

2023a izan da orain arte gure herrietan euskara sustatzeko jarduera gehien egin diren urtea. Gure herrietako 7tan jarduerak egin dira.

Sukaldaritza tailerrak arrakasta izugarria izan dute berriro ere, 4 herriek aukeratu bait dute Euskara haien herrietan sustatzeko honelako tailerrak egitea. †Arrietan† †Gerenun† †Langarikan† †Trokonizen burutu dira. Aldiz †Alaitza eta †Gauna Magia ikuskizunak aukeratu dituzte eta †Gazeon txikientzako eskulan tailerra burutu zen uztailan.



AMALUR

Iruraiz-Gaunako Emakumeen Taldea

Jende askok jakingo duzunez, duela urte batzuk **AMALUR** izeneko gure udalerriko emakume-taldea sortu zen, eta Udalarekin batera hainbat ekimen, tailer eta jarduera egiten dituzte.



Iruraiz-Gaunako Udalaren Berdintasun Jarduerak

Iruraiz-Gaunako gero eta gizon eta emakume gehiago sentsibilizatzen ari dira berdintasuna gorpuzteko erronka kolektiboki gure gain hartu behar dugula. Udal honentzat garrantzitsua da prestakuntzarako guneak partekatzea, baita hausnartzeko, iritzia emateko eta erabakiak elkarrekin hartzeko ere.

2023ko azken hilabeteetan hainbat jarduera, hitzaldi eta tailer egin dira gure herrietan berdintasunaren arloan:

- † **Gauna**: Enerkiren Energiari buruzko hitzaldia
- † **Arrieta**: Yolanda Pastorren Sinestea sortzea da tailerra
- † **Langarika**: Aitziber Aginagalderen Erase una vez... El mito del matriarcado vasco
- † **Gazeo**: Isabel Mellenen Tierra de Damasen hitzaldia Gazeoren pinturei buruz
- † **Erentxun**: AFRIKALDIA, zinema afrikarren euskal zinemaldiko RAFIKI filmaren proiektioa

Eskualde-mailan, hileko hirugarren astelehenean gaztelaniaz eta hilabeteko hirugarren asteartean euskaraz 18:00etatik 20:00etara egiten den Irakurketa Klub Feminista ematen dela esan behar da, eta parte hartu nahi izanez gero, Udalarekin harremanetan jar zaitezke informazio gehiago emateko.

A 30

Azaroaren 30ean, **AMALUR** Iruraiz-gaunako Emakumeen Taldeko gure emakumeek greba feministan parte hartu zuten, zaintza publiko-komunitarioei balioa emateko asmoz. Izan ere, etxeko eta zaintzako langileek osasun fisiko eta emozionalaren kontura lan gaizki ordainduak egiten dituzte, lan-baldintza txarrekin eta errekonozimendu sozialik gabe. Eskerrik asko emakumeoi, eguraldi txarra izan arren, kausa babesteagatik!



Iruraiz-Gaunako Emakumeen Topaketa

2020ko otsailean, Iruraiz-Gaunako emakume batzuk udalerriko emakumeen topaketa bat proposatzera animatu ziren. Topaketa hartan argi geratu zen gure herrietan ere emakumeak elkartzeko aukera zegoela, konektatzeko, partekatzeo, babesteko eta hazteko asmoz.

Lehen kafe horretan, **AMALUR** izena eman zitzaion taldeari, eta pandemiak zapuztu zituen hainbat kezka eta ekimen partekatu ziren. Hala ere, garaia da egiteke geratu zen guztia berrituz hartzeko eta ahalduz eta konektatzen gaituen gure sarea berriz ehotzen saiatzeko.

Horregatik, emakumeok, bigarren kafe bat proposatzen dizuegu, topaketa berri bat: **martxoaren 14an, OSTEGUNA**, 17:00etatik 19:00etara **Arrietako** Gizarte Zentroan.

Talde honetan guztiok dugu lekua, guztiok dugulako zer eman eta guztietatik ikasten delako. Animatu arreba, ama, laguna, bizilaguna eta hurbildu.

Kafearen ondoren, 19:00etan, **Yogabonitoren** eskutik, **Alaitza** ko Silviarekin, hasierako yoga saio batean parte hartzerantz animatzen zaituztegu. Saioa doakoa izango da eta esterilla bat eta manta bat ekarri beharko dituzu.

PARTIKULARREK ETA ELKARTEEK PROPOSATUTAKO EKIMENAK

Bigarren urtez 2023an izan ditugu udalerriko pertsonek eta elkarteek proposatutako ekimenak. Geroz eta jende gehiago animatzen da bere eskutik ekintzak antolatzen eta 4 izan dira Udalaren dirulaguntza hauek erabili dituztenak ekimen ezberdinak prestatzeko.

Arrietan maiatzan “Elikadura Osasuntsua Kirolarientzat” saioa ospatu zuten, †Gazeo n ekainan Ardo dastaketa bat eta †Gauna n 2 saio izan ziren, Landare-koadroen tailerra eta produktu naturalak egiteko landareen tailerra.



Laster aterako da horrelako ekimenak eskatzeko deialdia, eta animatzen zaituztegu udaletxean informatzera eta zuen herrietan nahi dituzuen jarduerak egin ditzazuen.



PROPOSAMENAK



Zenbait proposamen helarazi nahi dizkizuegu interesatzen zaizkizuen esan diezaguten abian jartzeko:

1. Helduentzako **oinarrizko euskara ikastaroa**, apiriletik ekainera, ostegunetan 17:30etatik 19:30etara, Azilun, Udaletxean.
2. **GIMNASIOA**. Aziluko Lanturri Zentro Soziokulturalean makina estatikoak dituen gimnasio txiki bat prestatzeko aukera baloratu nahi dugu.

Bi ekimen hauetakoren batean interesa baduzue, idatzi edo deitu udaletxera (945 300 991 airuraiz.erregistroa@ayto.araba.eus)


ZOZKETAK

Udal berri hau, aurrerapenaren bidean, egungo hedapen-kanalen hobekuntzan murgilduta dago, eta bere gain hartzen du sare sozialak zubi bihurtzen direla, gure ideiak lotzeko, lankidetzaz sustatzeko eta ahotsak zabaltzeko. Horregatik, Udaletik kultura eta kirola bultzatzeko tresna gisa erabili nahi ditugu, eta horregatik, datozen hilabeteetan kultur eta kirol ekitaldietarako sarrerak zozketatuko ditugu gure udalerriko 16 urtetik gorako pertsonen artean, gure Udalaren Instagram kontua jarraitzen badute.

@iruraizgauna_udala

Animatu parte hartzera! ekitaldi desberdinetarako sarrerak izango ditugu

Erne egon zaitez!



ZUEN ESPAZIOA

Aldizkariaren gune hau zuentzat da.

Aldizkari honen zati bat utzi nahi dizuegu, zuen jakintzak, zaletasunak, profilak eta bitxikeriak udalerriarekin parteka ditzazuen. Estudioak, argazkiak, errezetak, istorioak, pasadizoak eta abar izan daitezke.

Zerbait partekatu nahi baduzu... kontaiguzu... entzuten dizugu!

Oraingo honetan, Alaitzako gure bizilagun Jesus Guevarak artikulua bat partekatu nahi du, Alaitzako elizaren eta Teruelgo herri bateko baseliza baten horma-pinturen antzekotasunei buruzkoa.



Alaitzako elizaren erdiko eszena

Erlijio-eremuetako irudikapen profanoak: Alaitzako (Araba) Jasokundeko Andre Mariaren Elizako eta Camañasko (Teruel) Kontsolamenduko Ama Birjinaren ermitako horma-pinturak

Gaur egun, Arabako udalerriko elizaren ganga absidean islatutako irudikapen askotan, jatorriari eta sinbolismoari buruzko eztabaida ezkutua dago oraindik.

Iturrieta mendilerroaren iparraldeko isurialdean gaude, San Juan eta Gereñu pasabideetatik hurbil. Pasabide horietatik Lautadara jaisten zen, lehen "Camino de Valencianos, Aragoneses y Castellanos al Puerto de San Sebastián y Francia" izenekoetatik.

"Alaiza" deitura toponimikoa XI. mendeko hainbat dokumentutan jaso daiteke (1071 eta 1085ekoak), Eximino Beílaz de Alaizak adierazten duen bezala. Eliz administrazioari dagokionez, Eguilazko Artzapeztegian integraturik, herri hau "Halayça" bezala agertzen da Aznar gotzainak 1257an idatzitako gutunean. Hori da, beraz, XIII. mendeko eraikinari buruzko lehen erreferentzia, nahiz eta estilo erromanikoak aurreuposatzen duen eraikuntza aurreko mendean hasi zela.

Arkupe bikoitzetik sartzen da, xake-apaingarri jakestarrez apainduta. Barrualdean, alboko habeartea zeharkatu ondoren, ekialdera begira dagoen aldarean jarriko dugu arreta, zirkuluerdi-formako absidearen gangan, hain zuzen ere. Bertan, eta estaltzen zituen kare geruza baten atzean, almagrez egindako pinturak zeuden (lurra burdin oxidoarekin). Hain oinarrikoa den koloratze-teknika hori lehen giza adierazpen artistikoetan ere ageri da.

Absidearen erdian eszenografia bat dago, itxurazko kontzertu figuratiborik gabe, baina bertan soldaduak, dontzeilak, hegaztiak, hileta-eszena bat eta zentauro bat daude, hori guztia muino edo mota baten gainean altxatutako gaztelu baten erdiko irudiaren inguruan grabitatuak. Bertatik, defendatzaileek harrizko blokeak, baleztadun geziak eta lantza luzeak jaurtitzen dituzte, multzo baten bi alboetatik setioa geldiarazten saiatzen direnak, hierarkia ordenatuan, lehen lerroan dauden arkularien bidez, eta, ondoren, maila txikienetik handienara doazen zaldizkoen bidez, lehen lerroetik urrun dagoen parte-hartzea ikusi arte. Antzaenez, errege bat edo gutxienez koroadun zaldizko bat da, estandarrea daramana eta dekorazio deigarritz estalia.

Gaztelutik bertatik hileta-segizio bat abiatzen da, xake-dekorazioa duen arkupedun eliza bateraino, non kanpai-jole batek duelua errepikatzen duen.

Horrela, espazio sakratuetan mundu-irudikapenaren sinbiosi bat aurkitzen dugu, Camañasko Kotsolamenduko Ama Birjinaren Ermitan ez bezala, non habeartean teilatuaren (profanoa) eta absidearen (erlijioso) arteko bereizketa onargariagoa den.



Camañasko (Teruel) Virgen de Consuelo teilatutik kaliza batetik edaten ari diren bi hegaztien eszena

Bien artean eszena arruntak aurkitzen ditugu, zaldi gaineko zaldizkoak, animaliak, fantasia (contorsionista eta siamdarrak Camañasen eta zentauroa Alaitzan) eta gazteluan fokalizatutako boterearen irudikapena, Erdi Aroan alderdi politiko-ekonomikoa egituratzeko elementu gisa.



Jaunak armarrarian lantza daramatela, dekorazio linealarekin. (Etsaiak armada bereko zaldunekin ez nahasteko, XI. mendetik aurrera armarriak eta zaldiak apaintzen hasten dira).



Fantastikoak ere badu lekua Camañas elizan, siamdarren irudian ikus daitekeen bezala.



Elizaren teilatuaren erdiko
habean irudikatutako
exotikoa.



Eraikuntza horiek, edozein euskarritan gauzatzen direla ere, erraz antzeman daitekeen eredu transmititzen dute, geografiatik eta kronologiatik kanpokoak. Horrela, antzeko irudiak aurkitzen ditugu, bai ondorengo mendeetan, bai aurrekoan, bai Bayeaux-en tapizean, non, eszenaren eta kasket eramailen antzekotasunak, setio bat irudikatze modu estandarizatu bat dela pentsarazten baitu.



Dinan gazteluaren ingurua, Britainia. Bayeaux-eko tapiza. XI. Gaztelua, bi alboetan zaldunek eta lehen lerroko soldaduek setiatutako goragune edo mota baten gainean.

Consuelo de Camañasen kasuan ez bezala, non transmititzen duen informazio dokumentala Ordena militar tenplario baten barruan ere koka daitekeen, Alaitzan ez dugu bere malko-
ezkutuetan inolako sinbolismorik aurkitzen borroka zehatz bat edo irudikapen generiko bat den argitzen lagun dezakeenik, heraldika aurreko garai batean baikaude.

Hipotesi asko daude Alaitzaren historia piktorikoaren sinbolismoaren eta interpretazioaren inguruan, eta ziurtasun gutxi. Orain arte, bisitaria sugestionatuta joaten da tenplura, aurrez sareetan ikusitakoagatik edo eszenen salbuespenari buruz esan diotenagatik, eta automatikoki altxatzen du ikuspegia, azalpenaren denboran txundituta geratzeko.

Denbora horretan, gora begiratzeari utzi gabe, mila galdera egiten zaizkio eta bere ondorioak ateratzen ditu. Eta kontraesanetan sartzen da, eta zalantza egiten du berriro. Eta etxera itzultzean, autoan senideekin edo lagunekin partekatzen du absideari begira ondorioztatu duena. Eta horrela bere pertzepzio eta dibagazioekin bere irudien interpretazio eta sinbolismoaren misterioa bizirik mantentzen du, iraganera bidaiatu eta zurezko aldarnio batzuetara igotako pertsona batek edo batzuek gaur egun ikusten dugun narrazioa okre gisa islatzen zuten une hori ikusi nahi izanez. Orduan, imajina ezazu orainaldira urduritasun edukiz itzultzea eta Alaitzaren pinturen benetako esanahia argitzea.

Baina laster konturatzen da hori ezinezkoa dela, tenplura sartu beharrean begirada jaisten ez bazuen behintzat, eta XIII. mendera, XII.era eta XI.era bidaiatzeko aukera zientifiko eta onargarria dagoela oharitzen ez bazen, gure konposizio molekularrarekin jolastu gabe.

Orduan, arkeologiaz eta estratigrafiaz oroituko zen, eta bien gaitasunaz, historiarekin batera, eliza sortu zen une eta eremu berean gu presente egiteko, eta ziurtzat jotzen dugu beti izan zuela geometria hori, oinplano hori.

Baina elizako harlauzen azpian dagoen lurak oraindik ez du ezer esan eraikina errematatzen duten pinturei buruz, ez diogulako galdetu. Urduri dago eta bisitariak zalantzan jarriko du, administrazioak galdetuko dio eta arkeologiak ahotsa emango dio.

Jesús Guevara (Alaitza)


AGENDA

OTSAILA

**13, asteartea, 11:00 - AZILU-
Udaletxean** - Ziurtagiri digitalei eta horien erabilerari buruzko jardunaldia 


**20, asteartea, 17:30 - Gereñu -
Gizarte zentroan** - BINGOA adin guztietarako

**23, ostirala, 17:30 - Ezkerkotxa
Gizarte zentroan** - Hitzaldia:
Emakumeentzako elikadura: menopausia eta aldaketa hormonalak (Amaia Martioda)

**24, larunbata, 10:00 a 14:30 - TROKONIZ-
Gizarte zentroan** - Ekoprint tailerra 

**27, asteartea, 18:00 - AZILU-
Centro Lanturri** - Administrazio Batzarren bilera

APIRILA

**13, larunbata, 10:00 a 14:30 - 
GAZEO-
Gizarte zentroan** - Ekoprint tailerra

**23, asteartea, 17:30 - Alaitza -
Gizarte zentroan** - BINGOA adin guztietarako

MARTXOA

**7, osteguuna, 17:30 - GAUNA
Gizarte zentroan**- Hitzaldia: Mujeres de Cuerpo y Alma (Catalina Garcés)

8, ostirala Emakumeen eguna 

**14, osteguna, 13:30 a 15:30 - Azilu
Gizarte zentroan** - AUTONOMOEN formakuntza

**14, osteguna, AMALUR Emakumeen topaketa
Gizarte zentroan- Arrieta
17:00 a 19:00** Kafea eta baterako sorkuntza
19:00 a 20:00 Emakumeentzako yoga

19, asteartea - KORRIKA 

**26, asteartea, 17:30 -Gazeo-
Gizarte zentroan**- BINGOA adin guztietarako

MAIATZA

**4, larunbata, 10:10 a 14:30 - Alaitza -
Gizarte zentroan**- Ekoprint tailerra 

**17, ostirala, 18:00 - Gereñu-
Gizarte zentroan** - Hitzaldia -tailerra:
Botiquin natural familiar (Guillermina García)

 *aldez aurretik udalean izena eman - 945300991*

AGENDA

2024 otsaila - maiatza


Aktibitateak



Astearte batean hilean 17:30ean, adin guztietako pertsonak biltzen gara udalerriko hainbat herritan mahai-jokoak eta bingoak partekatzeko. BINGOko sariez gain, 5 jardunaldietara laguntzen diguten pertsonei saria emango zaie. Anima zaitetze hurrengo topaketetan parte hartzen:

| | | |
|--------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|
| Gizarte zentroetan | GEREÑU - Otsailak 20 GAZEO - Martxoak 26 ALAITZA - Apirilaren 23 | ASTEARTEA 17:30 |
|--------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|


Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu herri bakoitzeko anfitrioei, kafe goxoa oparitzen baitigute. Eskerrik asko!

 Jardunaldi hauetako bat zure herrian partekatu nahi baduzu edo garraioa behar baduzu jarri harremanetan Udalarekin 945 300 991

Ecoprint-en hastapen tailerretan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Mar Friasek landareen pigmentu naturalen estanpazioak egiten irakatsiko digu, adibidez kotoia edo lihoan. 3 jardunaldi berdin egingo dira gure 3 herritan:

| | | |
|--------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------|
| Gizarte zentroetan | TROKONIZ - Otsailak 24 GAZEO - Apirilaren 13 ALAITZA - Maiatzak 4 | LARUNBATA 10 a 14:30 |
|--------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------|

 Udaletxean izena eman behar da 945 300 991 plazak bete arte.

DOAKOA



Formazioa



Otsailak 13, asteartea, 11:00 – AZILU – Udaletxean

Ziurtagiri digitalei eta horien erabilerari buruzko jardunaldia.

DOAKOA

Ziurtagiri digitalekin erabiltzen ikasteko oinarriko prestakuntza jasotzen du. Zoaz ordenagailuarekin, tabletarekin edo mugikorarekin ziurtagiriak instalatzeko eta erabiltzen hasteko.

Martxoak 14, osteguna, 13:30etik 15:30era – AZILU – Lanturri Gizarte Zentroa

AUTONOMOENTZAKO prestakuntza. Kotizazio-sistema berriak.

DOAKOA

Antolatzailea: ADR Lautada

ADR Lautadak pertsona AUTONOMOEI zuzendutako jardunaldi bat egiteko aukera ematen digu. Bertan, langile autonomoen Erregimen Berezirako kotizazio-sistema berria eta Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoarekin elkarreragiteko nozioak ezagutzeko aukera izango dute.

Aukera berezia izango da Iruraiz-Gaunak martxan jari nahi duen lanerako espazio partekatu eta kolaboratibo (coworking) bat sortzeko ekimenari balioa emateko.

Apirilaren 11tik ekainaren 20ra, osteguna, 17:30etik 19:30era – AZILU

EUSKARA ikastaroa 0 mailatik. DOAKOA

Iruraiz-Gaunako Udaletik 0 mailatik hasten den euskara ikastaroan izena ematera animatzen zaituztegu. Hiztegia eta oinarriko esamoldeak ikasiko dituzu. Izen-ematea udaletxean 945 300 991 airuraiz.erregistroa@ayto.araba.eus



Kirol aktibitateak

KANGOO

Ostegunetan 19:30tik 20:30ra Azilu – Lanturri

Hiruhileko kouta 31,50€

IPAR MARTXA

Hileko 3. igandetan 10:00tik 12:00ra Ibilbide ezberdinak

Hiruhileko kuota 13,70€

Iruraiz-Gaunako Udalak hitzarmenak ditu Aguraingo eta Dulantziko udalekin. Beraz, udal horiek eskaintzen dituzten jardueretan interesatuta bazaude, udal horiekin harremanetan jar zaitezke.